



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriak 29

Vitoria-Gasteiz, 29 de octubre de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNUAK URTERO AINTZATESPENA EGINGO DIE EUSKADIKO ADMINISTRAZIO OROKORREAN ERRETIROA HARTZEN DUTEN LANGILE GUZTIEI

- **Mota horretako lehen aitortpena 2020ko urtarrilerako programatuta dago**
- **Eusko Jaurlaritzaren iritziz, aintzatespen-mota horrek administrazio publikoaren funtzionamendua hobetzea dakar**

Gobernu Kontseiluak urtero erretiroa hartzen duten langile publikoei haien lan-bizitzan betetako eginkizunengatik aintzatespena egiteko ekitaldiak egitea onartu du. Eusko Jaurlaritzaren helburua da omenaldia egitea Euskadiko administrazio orokorrean eta haren erakunde autonomoetan lan egiten duten pertsoneri.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, publikoki bere langileen lana balioesteak beren eguneroko egitekoan eta lanbide-eginkizunean administrazio publikoaren funtzionamendua hobetzen laguntzen du.

2020, LEHEN AINTZATESPENA

Lehen aintzatespena 2020ko urtarrilean egitea aurreikusten da. Ekitaldi horiek urtero antolatuko dira eta, haien bidez, erretiroa hartu dutenei egingo zaie aintzatespena, modalitatea edozein dela ere: boluntarioa, adinagatik edo ezintasunagatik. Gainera, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan gutxienez 5 urtez zerbitzuak eman izana, langile funtzionarioaren edo lan-kontratudun langilearen izaeran.
- ✓ Lan-kontratudun langilearen kasuan, zerbitzu aktiboaren, zerbitzu berezien edo behartutako eszedentziaren administrazio-egoeran egotea.

Enplegu publikoaren arloan eskumena duen zuzendaritzak deituko die langile publiko erretiratuei ekitaldira bertaratzeko; nahi duen pertsona oro bertaratu ahalko da.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNUAK 1.026 PLAZA DEITU DITU EUSKADIKO ADMINISTRAZIO OROKORRERAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA BATEAN

- 1989tik egin duen deialdi handiena da; orduan, azken aldiz, Eusko Jaurlaritzak 1.000 plaza baino gehiagoko oposizioak deitu zituen Euskadiko administrazio orokorrean
- Aurrerantzean, Eusko Jaurlaritza Lakuan ordezkariak duten sindikatuarekin datorren urteko lan-eskaintza publikoa negoziatzen hasiko da; hartan, gutxienez, 500 plaza izango dira
- Azterketak IVAPekin koordinazioan egingo dira, eta datorren urtean hasiko dira

Josu Erkoreka Gobernantza eta Autogobernuko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio aurten, 2019an, lan-eskaintza publikoa deituko dela Euskadiko administrazio orokorrean, 1.026 plazakoa. LEPak txanda bikoitza izango du, barne-sustapenekoa eta sustapen askekoa. Euskadiko administrazio orokorreko lanbide-kidego ugari hartuko ditu:

- ✓ **A taldea - A1 azpitaldea:**
 - Osasun Publikoaren teknikarien kidegoa: 52 plaza
 - Epidemiologiako teknikarien kidegoa: 20 plaza
 - Informazio Sistemen teknikarien kidegoa: 35 plaza
 - Albaitaritzako teknikarien kidegoa: 20 plaza
 - Laborategiko teknikarien kidegoa: 10 plaza
 - Arkitektura aukerako teknikarien kidegoa: 33 plaza
 - Medikuntza aukerako teknikarien kidegoa: 50 plaza
 - Zuzenbide aukerako teknikarien kidegoa: 206 plaza
- ✓ **A taldea - A2 azpitaldea:**
 - Administrazio Kudeaketako kidegoa: 70 plaza.
- ✓ **C taldea - C1 azpitaldea:**
 - Administrazioko kidegoa: 130 plaza.
- ✓ **C taldea - C2 azpitaldea:**
 - Laguntzaileen kidegoa: 350 plaza.
- ✓ **E taldea:**
 - Mendekoen kidegoa: 50 plaza.

Hautaketa-proba guztiak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP) elkarlanean deitu eta diseinatuko dira.

2020KO AZTERKETAK

Euskadiko administrazio orokorreko 1.026 plaza horiez gainera, 2018an 337 onetsi ziren eta, 2017an, 150. Gainera, Eusko Jaurlaritza, aurrerantzean, lan-
eskaintza publikoaren negoziazioarekin hasiko da (Lakuan ordezkariak duten
zentral sindikalekin: ELA, LAB, CC.OO eta UGT), datorren urterako
karguarekin; 2020an Euskadiko administrazio orokorrean gutxienez beste 500
plaza gehiago onestea aurreikusten du.

Euskadiko administrazio orokorreko oposizioen lau deialdietako azterketak
(2.000 plaza baino gehiago 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteen kargura)
datorren urtetik aurrera egingo dira, eta 2021ean eta 2022an luzatuko dira.

30 URTE

Gaur aurkeztu den lan-eskaintza publikoa 1989tik egin den deialdi handiena da;
orduan, azken aldiz, Eusko Jaurlaritzak 1.000 plaza baino gehiagoko
oposizioak deitu zituen Euskadiko administrazio orokorrean

ENPLEGU PUBLIKOA FINKATZEA

Aurkeztutako deialdia “[2020ko Enplegu Plan Estrategikoa](#)”n sartzen da; plan
horren arabera, 13.500 dira Eusko Jaurlaritzak IX. legegintzaldian lan-
eskaintza publikoaren bidez deituko duen enplegu publikoaren gutxieneko plaza-
kopurua.

Euskadiko administrazio orokorreko enplegu publikoaren eskaintzaren bidez,
Gobernuak enplegu publikoa finkatzeko eta egonkortzeko konpromisoan
aurrera jarraitzen du. Helburu nagusia da lan-sektore indartsua, sendoa eta
kalitateko enpleguduna lortzea, herritarrei ematen dien zerbitzu publikoa ahalik
eta onena izan dadin.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 1,8 MILIOIREN BEKAK IRAGARRI DITU NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREKO IKERTZAILE ETA TEKNOLOGO GAZTEENTZAT

- **Nekazaritzako elikagaien balio kateak etorkizunean edukiko dituen profesionalei garapen teknologikoko eta berrikuntza enpresarialeko alorretan laguntzeak exekutibo autonomoarentzat duen garrantzi estrategikoa berresten dute**
- **2007an eman ziren lehenengo aldiz beka hauek, eta harrez gero 240 beka finantzatu dira guztira (107 gazte ikertzaileentzat eta 133 gazte teknologoentzat)**

2020an Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Programako gazteentzako hamabi beka (doktoretza aurrekoak) eta nekazaritza eta arrantzaren sektoreko eta elikagaien sektoreko ingurune zientifiko-teknologikoan eta enpresakoan Teknologoen Prestakuntzarako Programako hamar beka deitzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak bere azken kontseilu bileran. 1,8 milioi euro inguru bideratu dira beka horietara.

2007an eman ziren lehenengo aldiz beka hauek, eta harrez gero 240 beka finantzatu dira guztira (107 gazte ikertzaileentzat eta 133 gazte teknologoentzat); datu horrekin, ideia bat egin dezakegu zein garrantzi estrategiko duen exekutibo autonomoarentzat etorkizuneko profesionalei laguntzeak, nekazaritzako elikagaien balio kate osoan I+G+B jarduera sustatze aldera.

Hala jasotzen du Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (GEPE), zeinak exekutibo autonomoaren politikaren ildo nagusietako bat izanik berrikuntzaren bitartez, ezagutza berriak txertatuz eta agente guztien lankidetzaz Elikaduraren Balio Katearen agente guztien lehiakortasuna oro har hobetzea bilatzen baitu, besteak beste.

Laguntzak estuki loturik daude, halaber, Eusko Jaurlaritzak XI. Legegintzaldirako finkatutako Herrialdeko Helburuetako batzuekin, hala nola hauekin: langabezia %10etik behera jaitea eta gutxienez 20.000 gaztek lehen lan esperientzia eduki dezatela lortzea.

Laguntzen zenbatekoa

Prestatzen ari diren ikertzaileek (doktoretza aurreko beka) 19.000 euro eskuratuko dituzte lehen urtean, 20.000 bigarren urtean, 22.000 hirugarrenean eta 28.000 laugarrenean. Onuradunek, gainera, laguntza osagarri bat edukiko dute. Laguntza osagarri horren zenbatekoa ez da 2.000 eurokoa baino

handiagoa izango urteko, eta doktoretza kurtsoetan matrikulazio gastuak ordaintzeko, kongresu zientifikoetara eta lan jardunaldietara joateko, beste ikerketa zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko edo beste kurtso batzuk egiteko erabiliko da, esaterako.

Teknologoen prestakuntzarako laguntzei dagokienez, urtero 14.000 €-z hornituko dira, gehi Gizarte Segurantzako kuotak. Onuradunek, gainera, laguntza osagarri bat edukiko dute. Laguntza osagarri horren zenbatekoa ez da 1.000 eurokoa baino handiagoa izango urteko, eta kongresu zientifikoetara eta lan jardunaldietara joateko gastuak ordaintzeko erabiliko da, gastuak justifikatu ondoren.

Laguntzen onuradun diren pertsonak sektorean erreferenteak diren ikerketa zentroetan sartuko dira, hala nola Neikerren, Aztin eta Leartikerren. Beketako batzuk, halaber, EHUko zentro batzuetan eta Basque Culinary Centerren ere garatuko dira. Prestatzen ari diren ikertzaileen kasuan, haiek atxikita daudeneko organismo, zentro edo erakunde bakoitzak ikertzaileek jasoko duten ordainsari gordina eta kotizazio motei dagozkien gizarte segurantzako kuotak eta hobariak eskuratuko ditu. Teknologoen kasuan, Eusko Jaurlaritza bera da erakunde ordaintzailea.

Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, agindua EHAAr argitaratzen den egunean kontatzen hasita. Eskaerak, berriz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren menpeko Elikagaien Kalitateko eta Industrietako zuzendari helaraziko zaizkio, helbide honetara bidalita: Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

Interesdunek kanal telematikoa zein presentziala erabili ahal izango dituzte, eta kasu bietan Eusko Jaurlaritzako Egoitza elektronikoan sartuko dira http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/webgunearen/helbidean.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNUAK DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNA ETA ENPLEGU ZENTRO BEREZIEK EUSKAL ERREGISTROA ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONETSI DU

- 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean
- 2020rako aurrekontuen proiektuan desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko laguntza-programak finantzatzeko zuzkidura globala 57.300.000 eurokoa da
- Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, diru-laguntzaren zenbatekoa % 10 arte handituko da

Gobernu Kontseiluak, gaur goizean, **desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin lotuta dauden programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa** arautzen dituen dekretua onetsi du. **Beatriz Artolazabal** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak zehazten duenez, “haren **helburua da desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunarekin** zerikusia duten eta Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bidez emango dituen laguntza- eta zerbitzu-programak arautzea, eta **lan-jarduera egonkorreko eta kalitatekorako** laguntza eta sarbidea sustatzea, **bai eta enpleguan mantendu daitezkeen ere**”.

Dekretua 2020ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. 2020rako **aurrekontuen** proiektuan **desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko laguntza**-programak finantzatzeko zuzkidura globala 57.300.000 eurokoa da.

Beatriz Artolazabalen hitzen arabera, “Euskadin, **Enplegu-zentro berezien bidez egiten den lan babestuaren formula** funtsezkoa da **desgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioarako**; izan ere, bide ematen da kontratatutako **desgaituek** gizarte-eta lan-ohiturak eskuratzeko. Horretarako, okupazioa ematen zaie, beren enplegagarritasuna hobetzen da eta ekoizpen-sisteman sartzeko bide ematen zaie.

Dekretuak, II. kapituluaren, Eusko Jaurlaritzak Lanbideren bidez ematen dituen **laguntzen** esparru orokorra arautzen du; III. kapituluaren, desgaitasuna duten pertsonen **enplegagarritasuna hobetzeko ekimenen** esparrua ezartzen du, eta, IV. kapituluaren, **Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa** sortu eta arautzen du, eta haiek kalifikatzeko eta inskribatzeko prozedura ezartzen du.

Dekretuan araututako **laguntzak** Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako lan-zentrotan lotutako eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren jarduketetan aplikatuko dira. Enplegu-zentro berezientzako laguntzen kasuan, haiek enplegu-zentro berezien euskal erregistroan inskribatu beharko dira. **Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroaren** arauketa gizarte- eta zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutenei aplikatuko zaie.

Dekretuak **desgaitasuna duten pertsonatzat** jotzen ditu honako hauek: % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak; haietatik, laneratzeko zailtasun bereziak dituztenak, garuneko paralisia dutenak, gaixotasun mentala dutenak edo adimen-desgaitasuna duten pertsonak, % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta izanik, eta desgaitasun fisikoa edo sentsoriala izanik % 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak.

Enplegarritasuna

“Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bidez, desgaitasuna duten pertsonen lanbide-profilera eta haien behar berezietara erabat egokitutako eta antolatutako neurri eta politikak konbinatzen dituzten **enplegu-ibilbide indibidualizatu eta pertsonalizatu**en diseinua ziurtatuko du. Era berean, prestakuntza-eskaintzan desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak hobetzeko ekintza egokituak jaso ahalko ditu”, esan du Artolazabalek.

Beatriz Artolazabalek bi dirulaguntza lerroren bidez **lan-merkatu arruntean desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzeko laguntzak** aipatu ditu: **kontratazioa** eta lanpostuak **egokitzea** eta oztopoak ezabatzea.

Laguntzen enpresa onuradunek egin ahalko dituzte langileen kontratazioak edo hartu lanpostuak egokitzeke eta oztopoak ezabatzeko neurriak. **Langile autonomoak**, beren plantillako langileen inguruko laguntzez gainera, laguntzen onuradun ere izan ahalko dira. **Lanbideak**, urtero, laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa ezarriko du.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Artolazabalek honako hau zehaztu du: “diruz lagundu ahalko dira **kontratazio mugagabea**, bai eta bazkide langileak edo lan-bazkideak kooperatibetan edo lan-sozietateetan sartzea, langabezia dauden eta desgaitasuna duten pertsonak sartzea, alegia, Gizarte Segurantzaren erregimen batean ere alta emanda ez daudenak eta enplegu-zerbitzu publikoetan enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak. Era berean, diruz lagundu ahalko da enplegua sustatzeko aldi baterako kontratuak eta prestakuntza-kontratuak mugagabe bilakatzea”.

Langabe izateko baldintza ez da beharrezkoa izango aldi baterako kontratuak mugagabe bilakatzeko kasuan. Modu berean, baldintza hori ez da jasoko Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezi batetik enpresa onuradunaren zuzeneko kontrataziorako trantsizioaren kasuan, lan-enklabeen kasuan enpresa laguntzailean sartzea barne. Kasu horietan, enpresak eginiko kontratazioak etenik gabea izan beharko du.

Enpresa laguntzaileak lan-enklabeke pertsona bat kontratatzen duen kasuetarako, kontratatutako pertsonak desgaitasuna badu, kontratua etenik gabea egin beharko du eta, gutxienez, enklabea hasi edo langilea hasi eta hiru

hileko epea igaro ondoren, baldin eta, azken kasu horretan, **langilea enklabearen** ondoren hasten bada.

Kontratazioak lanaldi osoan edo lanaldi partzialean egin ahalko dira. Azken kasu horretan, lanaldia, gutxienez, lanaldi osoaren % 50 izan beharko du edo, gutxienez, % 35 laneratzeko zailtasun bereziak dituzten eta desgaitasuna duten pertsonen kontratazioaren kasuan.

Ezingo dira diruz lagundu enpresaburu indibidualaren bizilagunaren, bere arbasoen, ondorengoan edo bigarren mailara arteko odol bidezko, ezkontza bidezko edo adopzio bidezko zehar-ahaideen kontratazioak. Ez eta izaera pertsonalistako sozietate-forma duten enpresetako edozein bazkideren ahaideenak ere, edo edozein motatako sozietate, elkarte edo korporazio gisa eratutakoetako gobernu- eta zuzendaritza-organoetako bazkide edo kideen ahaideenak ere ez. Ez eta bazkideen kontratazioa ere, sozietate kooperatiboetan eta lan-sozietateetan izan ezik. Ezingo dira diruz lagundu enpresa eskatzailean edo enpresa-talde bereko beste batean kontratu mugagabe batez kontratazioaren egunaren aurreko 24 hilabetean zerbitzuak eman dituzten langileekin eginiko kontratazioak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa

Lanaldi osorako aurreikusitako **kontratazioen dirulaguntza** 4.000 eurokoa da. Enpresa laguntzaileak lan-enklabeako pertsona bat kontratatzen badu, kontratatutako pertsonak laneratzeko zailtasun bereziak dituen eta desgaitasuna duen pertsona bat denean, dirulaguntza 8.000 eurokoa izango da.

Lan-kontratua denbora partzialean hitzartzen denean, aurreko ataletan aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, hitzartutako lanaldiaren proportzioan. Kontratatzen dena **emakumea** bada, dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 areagotuko da. Dirulaguntzak ezingo du gainditu eginiko kontratuaren urteko soldata-kostuaren % 75; halakotzat joko da ordainsari gordinaren eta Gizarte Segurantzaren kotizazioaren batura. Kontratazioagatiko laguntzen enpresa onuradunek egonkortasunari eutsi beharko diote kontratatutako pertsonen enpleguan.

Lanpostuak egokitzeko eta oztopoak ezabatzeko, dirulaguntza jaso ahalko dute desgaitasuna duten pertsonak enplegu-eremuan beste pertsona batzuen aldean bizi dituzten desabantailak gainditzeko jarduketa indibidualek, bai irisgarritasuna bermatzeko jarduketek, bai lanpostuan, lan-ingurunean edo ekoizpen-prozesuan arrazoizko egokitzapenak egiteko jarduketek. Egokitzapen indibidualeko neurriak ezartzeko dirulaguntzak 1.000 eurokoak izango dira egokitzapenaren helburu izan den desgaitasuna duen pertsona bakoitzeko.

Laguntza bidezko enplegu-jarduketentzako laguntzak laneratzeko zailtasun bereziak dituzten eta desgaitasuna duten pertsonak **lan-merkatu arruntean integratzera bideratuta daude**; kolektibo horretan, programa honen ondorioetarako, pertsona gorra edo % 33ko edo gehiagoko entzumen-desgaitasuna duten pertsonak sartzen dira, baldin eta Lanbiden okupatu

gabeko enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta badaude, bai eta enplegu-zentro bereziek kontratatutakoak ere, laguntza bidezko enplegu-unitate izenekoak eratzen dituzten erakunde onuradunetako langile espezializatuak eginikoak.

Laguntza bidezko enplegu-jarduketak garatzeko dirulaguntzen erakunde onuradunak honako hauek izan daitezke: irabazi-asmorik gabeko elkarte, fundazio eta bestelako erakundeak eta enplegu-zentro bereziak, hala inskribatuta daudenak enplegu-zentro berezien euskal erregistroan. Dirulaguntzaren helburua da erakunde onuradunen laguntza bidezko enplegu-unitatea eratzen duten profesionalen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak finantzatzea, bai eta laguntza bidezko enplegu-jarduerari lotutako administrazioko, koordinazioko eta joan-etorrietako gastu orokorrak ere.

Laguntza bidezko enplegurako dirulaguntzaren zenbatekoa laguntza bidezko enpleguaren ekintzen langile hartzaile-kopuruaren arabera ezartzen da; langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako lan-zentroetakoak izan beharko dute. Honako baldintza hauek izango dira: 7.800 euro adimen-desgaitasuna, gaixotasun mentala edo garuneko paralisia duen eta % 33ko edo gehiagoko maila aitortua duen pertsona baten laneratze bakoitzeko, gutxienez urtebeteko kontratuarekin; 6.600 euro adimen-desgaitasuna, gaixotasun mentala edo garuneko paralisia duen eta % 33ko edo gehiagoko maila aitortua duen pertsona baten laneratze bakoitzeko, gutxienez 6 hileko kontratuarekin; 4.700 euro desgaitasun fisikoa edo sentsoriala duen eta % 65eko edo gehiagoko maila aitortua duen pertsona baten edo pertsona gor baten edo entzumen-desgaitasuna duen eta % 33ko edo gehiagoko maila aitortua duen pertsona baten laneratze bakoitzeko, gutxienez urtebeteko kontratuarekin; 4.000 euro desgaitasun fisikoa edo sentsoriala duen eta % 65eko edo gehiagoko maila aitortua duen pertsona baten edo pertsona gor baten edo entzumen-desgaitasuna duen eta % 33ko edo gehiagoko maila aitortua duen pertsona baten laneratze bakoitzeko, gutxienez 6 hileko kontratuarekin. Eta laneratutako eta kontratatutako desgaitasuna duen pertsona hori emakumea bada, aurreko paragrafoetan aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoak areagotu egingo dira, % 10.

Enplegurako laguntzak zentro berezietan

Dekretuak **enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen lan-integraziorako** laguntzak arautzen ditu, lanpostuei eutsiz, enplegu egonkorra sortzeko inbertsioaren bidez, aurrekontu-orekaren eta enplegu-zentro berezien bideragarritasunaren bidez eta lanbide-jarduerarako laguntza-unitateen bidez; azken horien onuradunak enplegu-zentro berezien euskal erregistroan hala kalifikatuta eta inskribatuta dauden enplegu-zentro bereziak izan daitezke, Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako lan-zentroei lotuta diruz lagundu daitezkeen jarduketei dagokienez.

Laguntza horiek desgaitasuna duten pertsonen **lanpostuei eustera** bideratzen dira, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu egonkorra sortzeko inbertsiora ere. Dirulaguntzaren zenbatekoa inbertsioak eragindako kontratazio

mugagabe bakoitzaren arabera ezartzen da, enplegu-zentro bereziaren plantillan dauden langile desgaituen ehunekoaren arabera, honako muga hauekin: 12.000 euro desgaitasuna duten langileen kopurua zentroko plantillaren % 90etik gorakoa bada. 9.000 euro desgaitasuna duten langileen kopurua enplegu-zentro bereziko plantillaren % 70 eta 90 bitartekoa bada. Kontratatu dena emakumea bada, aurreko paragrafoetan aurreikusitako dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 areagotuko da. Dirulaguntzaren zenbatekoak inolaz ere ezingo du gainditu diruz lagundu daitekeen gastu totalaren % 70.

Enplegu-zentro berezien **aurrekontu-orekarako eta bideragarritasunerako laguntzen** helburua da gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezien aurrekontu-desorekak gainditzeko laguntzea, haien bideragarritasunari eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei eusten laguntzeko. Laguntzaren zenbatekoa aurreko ekitaldiko aurrekontu-saldo negatiboaren % 50en baliokidea izango da, eta muga 60.000 eurokoa.

Lanbide-jarduerarako laguntza-unitateen laguntzen helburua da enplegu-zentro berezietan laneratzeko zailtasun bereziak dituzten eta desgaitasuna duten pertsonen dagokienez aldi baterako edo denbora mugagabek kontratatutako lanbide-jarduerarako laguntza-unitateetako langileen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak finantzatzea. Lanbide-jarduerarako laguntza-unitateak dira desgaitasuna duten langileek lanpostu batean sartzeko prozesuan dituzten oztopoak edo zailtasunak gainditzeko eta haietan geratzen eta bilakatzen laguntzeko enplegu-zentro berezietako egokitzapen pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuen barruan dauden lanbide anitzeko taldeak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa enplegu-zentro berezian kontratatutako laneratzeko zailtasun bereziak dituen eta desgaitasuna duen pertsona bakoitzeko urteko kopuru finko batean ezartzen da, kontratu-motaren arabera, *haren iraupena aintzat hartuta*, bai eta lanaldia ere: Lanaldi osoko kontratu mugagabea: 1.200 euro. Eta sei hileko edo gehiagoko aldi baterako kontratua, lanaldi osoan: 600 euro.

Halaber, finantzaketa jaso dezakete honako arlo hauen inguruko jarduketek ere: **lanbide-orientazioko zerbitzuak; enplegua emateko eta enpresei aholku emateko zerbitzuak**; enplegurako **prestakuntza-** eta kualifikazio-zerbitzuak, eta **autoenplegurako** eta ekintzaitzarako aholku-zerbitzuak. Erakunde onuradunak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako lantokietan finantzaketa lor dezaketen jarduketak egingo dituzten enplegu-zentro bereziak, betiere kalifikazio hori dutenak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroan inskribatuta daudenak.

Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa

Gaur Gobernu Kontseiluak onetsitako **dekretuak Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa** sortzen du, bakarra Euskal Autonomia Erkidego osorako eta Lanbideri atxikia. Enplegu-zentro berezi gisa kalifikatu ahalko dira pertsona fisikoek edo juridikoek eratutako erakundeak, publikoak edo pribatuak, gaitasun juridikoa eta enpresaburu izateko jarduteko gaitasuna dutenak.

Enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa lortu nahi duten enpresek edo erakundeek honako **betekizun** hauek bete beharko dituzte: titularraren nortasuna; **helburu soziala**; **bideragarritasun** teknikoa eta finantzarioa; plantillaren tamaina eta banaketa; plantilla horrela eratzeko konpromisoa hartzea, desgaitasuna duten pertsonen emango zaizkien egokitze pertsonal eta sozialerako zerbitzuak zehaztea eta Euskadi barruan izatea bizilekua.

Erakunde sortu berriei dagokienez, aldeztatik jarduera hasi ez badute, enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa atzeratu egingo da, eta horretarako, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo sei hilabeteen barruan horren azalpen zehatza eman beharko da. Enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa egitean, hala badagokio, berariaz aipa daiteke gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezia dela.

Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa lortu eta halakotzat erregistratu ahalko dira irabazi-asmorik gabeko erakunde batek sustatzen dituela edo % 50etik gora irabazi-asmorik gabeko erakunde bidez partaidetuak direla egiaztatzen dutenak. Era berean, enplegu-zentro bereziaren onurak enplegu-zentro berezian bertan edo gizarte-ekimeneko beste enplegu-zentro berezi batzuetan berrinbertitzen direla egiaztatu beharko dute, hala jaso baita berariaz haien estatutuetan edo hura baita gizarte-ekimenekotzat kalifikatu eta erregistratu nahi den enplegu-zentro bereziaren forma juridikoaren ezaugarri intrintsekoa.

Enplegu-Zentro berezien euskal erregistroak enplegu-zentro berezietan inskribatzeko liburua izango du. Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko edota haiei aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera dagokion erregistroan inskribatuta zeuden enplegu-zentro bereziak euskal erregistro berrian sartuko dira.

Ogasun eta Ekonomia

INFORMAZIO TRUKAKETARAKO HITZARMENAK NAZIO ESTADISTIKA ERAKUNDEAREN, EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEAREN ETA FORU OGASUNEN ARTEAN

Gobernu kontseiluak Nazio Estadistika Erakundearen, Euskal Estadistika Erakundearen eta hiru Foru Ogasunen arteko hiru hitzarmen sinatzea onetsi du. Hitzarmen horien bitartez arautuko da Eustati eta INEri informazio fiskala hornitzeko prozesua. Prozesua beharrezkoa da Europako Estadistika Programaren eragiketen oinarri diren Euskal Estadistika Planaren eta Nazio Estadistika Planaren estadistika eragiketak gauzatzeko eta hedatzeko. Halaber, INEk eta Eustatek, euren eskumenak aurrera eramateko beharrezkoak izan daitezkeen estadistika taulak hornituko dizkiete Foru Erakundeei.

Eustaten eta INEren helburu estrategikoen artean, administrazio jatorria duen informazioaren erabilera handitzea dago, Euskal Estadistika Planeko eta Europako Estadistika Programako estadistika eragiketak egiteko. Helburu nagusia informatzaileek, familiak edo enpresak badira ere, dituzten kargak nabarmen murriztea da, Europako Estadistiken Jardunbide Egokien Kodeak planteatzen duen bezala.

Europako Estadistika Arautegiak eta Estadistika Legeak, administrazio erregistroen titular diren erakundeen eta Estadistika Erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak sortzea planteatzen dute, lankidetzaren hitzarmen horietan gauzaten diren informazio fluxu horiek koordinatzeko. Hitzarmen horietan datuen konfidentziasuna gorde eta bermatu egiten da, zergei buruzko datuen izaera erreserbatua eta Estadistika Legean aurreikusitako sekretu estadistikoa direla eta.

Hezkuntza

1,7 MILIOI EURO KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEKO ETA HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du kulturartekotasuna sustatzeko programak –ikasle etorkinei zuzenduak- eta ikasle sartu berrien hizkuntza errefortzuko programak gauzatzeko diru-laguntzak deitzen dituen Agindua. Sartu berri diren ikasleei zuzenduriko hizkuntza errefortzuko programak, Euskadiko hizkuntza ofizialak ez ezagutzearekin zerikusia duten zailtasunak dituzten ikasleei zuzenduak izango dira.

Deialdi honek 1.698.000 euroko diru-kopurua du, eta Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten Euskadiko itunpeko ikastetxeei dago zuzendua. Deialdi honen helburua da, 2019-2020 ikasturtean aipaturiko programa horiek martxan jartzeak eragiten dituen exekuzio nahiz pertsonal gastuak finantzatzea.

Diru-laguntza hauek jaso nahi dituzten itunpeko ikastetxeek honako dokumentazio honekin aurkeztu beharko dute eskaera, hilabeteko epean:

-Hizkuntza indartzeko programatarako, ikastetxeak ezarri asmo duen hizkuntza indartzeko programaren deskribapena, honako hauek zehaztuz: programan arituko diren irakasle espezializatuak eta haien arduraldiaren ehunekoa, parte hartuko duen ikasle kopurua, eta programazio didaktikoa, burutuko diren jarduera didaktikoak eta ebaluazio irizpideak azalduz.

-Kulturartekotasuna sustatzeko programatarako, ikastetxeak ezarriko duen programaren deskribapena, honako hauek zehaztuz: programan arituko diren irakasle espezializatuak, ikasturterako proposatutako helburuak, jarduerak eta beren egutegia edo lorpenen adierazleak, besteak beste.

Joan zen 2018-2019 ikasturtean Hezkuntza Sailak, orotara, gisa honetako 112 programa lagundu zituen diruz, itunpeko ikastetxeek aurkeztutako programak denak ere. Aurtengo ikasturte honetan, ikastetxeek hilabeteko epea izango dute euren proiektuak aurkezteko, deialdia EHAA-n agertu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hezkuntza

LANKIDETZA HITZARMENA, UPV/EHUko UDA IKASTAROEKIN

Hezkuntza sailburuak, Gobernu Kontseiluari gaurko bileran, Hezkuntza Sailak eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak sinatuko duten lankidetz hitzarmenaren berri eman dio.

Aurten XXXVIII ediziora iritsiko diren Uda Ikastaro hauek erreferente bihurtu dira dagoeneko udako agenda akademikoan, hainbat arrazoi tarteko: ikastaroen programan eta prestakuntza-formuletan etengabe gertatzen den berrikuntzarengatik; aliantza-sarearen hedapen eta irmotasunarengatik; herrialdearekin duen konpromisoarengatik; eta antolaketan duen kalitatearengatik.

Ibilbide horretan, Fundazioak proposatzen duen proiektuarekin inplikaturik agertu diren hainbat eragileren laguntzarekin burutu izan da Uda Ikastaroen programazioa. Eragile horien arten egon izan da Hezkuntza Saila, eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren bidez nahiz Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzaren bidez, Fundazioarekin lankidetzan aritu izan da. Bide horietatik, azken urteetan, aurrekontu-partida izendunen bidez finantzatu ditu ikastaroak Hezkuntza Sailak. Era berean, Fundazioak eta Sailak ikastaroen programaziora ere eraman dute lankidetz hitzarmena, “Irakasteko ikasi” deituriko zikloa elkarlanean diseinatuz eta garatuz. Aipaturiko ziklo hau hezkuntzako profesionalei zuzendua da nagusiki, eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako “Prest Gara” planaren zati da.

Bi erakundeon arteko sintonia ona dela eta, ikastaroek hezkuntza-komunitatean duten harrera bikaina ikusirik, eta UPV/EHUko Uda Ikastaroek euskal gizartearen sortzen duten eragin sozial eta ekonomikoa aintzat harturik, Hezkuntza Sailak egoki deritza dagoeneko sustraitua dagoen lankidetz hitzarmen hori berresteari, horretarako lankidetz hitzarmena sinatuz.

Lankidetz hitzarmen honen xedea da Hezkuntza Sailaren eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren arteko lankidetz-esparrua eta konpromisoak ezartzea, ikastaroen jardueran, antolaketan, garapen eta homologazio finantzazeari dagokionez. Era berean, udako ikastaroei bultzada eman nahi die –ezagutzak sakontzeko eta zabaltzeko prestakuntza-jardueran bat izaki–, euskal gizarteak eztabaidarako eta pentsamendu kritikorako topagune bat izan dezan, etengabe aldatzen ari den gizarte batean.

Hezkuntza

2,3 MILIOI EUROKO KOPURUAN KREDITU GLOBALA GEHITZEA, HEZKUNTZA SAILARENTZAT

Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomia sailburuaren proposamenez, kreditu globala gehitzea adostu du gaurko bileran, 2019ko ekitaldirako aurreikusitako ekarpenen guztizko zenbatekoaren kargura, Hezkuntza Sailari kreditu-zuzkidura gehigarria egiteko 2019ko Euskadiko Administrazio Orokorraren aurrekontutik. Honen helburua da, ekitaldi honetarako luzatutako aurrekontuan sartu gabeko jarduera batzuk burutu ahal izatea. Handitzearen zenbatekoa 2.379.724 eurokoa da, eta ikerketa zientifikora zuzenduko da gehien bat.

Hezkuntza Sailak zenbateko hori ikerketarekin, garapenarekin eta ikerkuntza zientifikoaren eremuko berrikuntzarekin lotutako hainbat programatarako bideratuko du, guztiak RIS 3 Euskadiko espezializazio adimentsuko estrategiari lotuak:

- Bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko jarduerak antolatzea.
- Teknologia kuantikoen arloko ikerketa-ekimen enblematikoei lotutako ekipamendua eskuratzea, arlo horretako prestakuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko.
- Bikaintasuneko ikerketari laguntzeko programak bultzatzea, azpiegitura handiak elkarrekin finantzatzuz eta ezagutza transferitzeko ekintzak finantzatzuz.
- Bikaintasuna sustatzea Erronka programaren bidez, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateekin eta Euskampus Fundazioarekin lankidetzan.
- Lankidetzan aritzeko azpiegitura berriak sortzea, Unibertsitatea+Enpresa Euskal Estrategiaren baitan.

Era berean, diru kopuru-horretatik Lanbide Heziketara ere bideratuko da funtsik, zehazki, Lanbide Heziketako ikastetxeetan berrikuntza aplikatuko proiektuak finantzatzeko.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO REALIZARÁ UN RECONOCIMIENTO ANUAL A TODO EL PERSONAL QUE SE JUBILE DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE EUSKADI

- **El primer reconocimiento de este tipo está programado para enero de 2020**
- **El Gobierno Vasco considera que este tipo de reconocimientos favorecen la mejora del funcionamiento de la Administración Pública**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la realización de actos anuales de reconocimiento, por las funciones desempeñadas durante su vida laboral, al personal público que se jubile. El objetivo del Gobierno Vasco es realizar un homenaje a las personas que han trabajado en la Administración General de Euskadi y sus organismos autónomos.

El Gobierno Vasco cree que valorar públicamente el trabajo de su personal en su quehacer diario y en su tarea profesional, ayuda a mejorar el funcionamiento de la Administración Pública.

2020, PRIMER RECONOCIMIENTO

El primer reconocimiento está previsto para enero de 2020. Estos actos serán anuales y reconocerán a quienes se hayan jubilado, en cualquiera de sus modalidades: voluntaria, por edad o por incapacidad. Además, deberán reunir los siguientes requisitos:

- ✓ Haber prestado servicios un mínimo de 5 años en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, en calidad de personal funcionario o laboral.
- ✓ Hallarse en situación administrativa de servicio activo, servicios especiales o excedencia forzosa para el personal laboral.

Será la dirección competente en materia de empleo público quien convoque al personal público jubilado a un acto al que podrán acudir las personas que deseen.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO CONVOCA 1.026 PLAZAS EN UNA OFERTA DE EMPLEO PÚBLICO PARA LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE EUSKADI

- **Es la convocatoria más numerosa desde 1989, fecha en la que, por última vez, el Gobierno Vasco convocó oposiciones con más de 1.000 plazas en la Administración General de Euskadi**
- **A partir de ahora, el Gobierno Vasco comienza a negociar con los sindicatos con representación en Lakua la Oferta Pública de Empleo del año que viene que tendrá, mínimo, otras 500 plazas**
- **Los exámenes se realizarán en coordinación con el IVAP y comenzarán el año que viene**

El Consejero de Gobernanza y Autogobierno, Josu Erkoreka, ha informado al Consejo de Gobierno de la convocatoria, este año 2019, de una Oferta Pública de Empleo en la Administración General de Euskadi (AGE) de 1.026 plazas. La OPE tendrá un doble turno de promoción interna y libre. Abarcará a numerosos cuerpos profesionales de la Administración General de Euskadi:

- ✓ **Grupo A-Subgrupo A1:**
 - Cuerpo Facultativo Salud Pública: 52 plazas
 - Cuerpo Facultativo Epidemiología: 20 plazas
 - Cuerpo Facultativo Sistemas de Información: 35 plazas
 - Cuerpo Facultativo Veterinaria: 20 plazas
 - Cuerpo Facultativo Laboratorio: 10 plazas
 - Cuerpo Facultativo Opción Arquitectura: 33 plazas
 - Cuerpo Facultativo Opción Medicina: 50 plazas
 - Cuerpo Facultativo Opción Derecho: 206 plazas

- ✓ **Grupo A-Subgrupo A2:**
 - Cuerpo de Gestión Administrativa: 70 plazas.

- ✓ **Grupo C-Subgrupo C1:**
 - Cuerpo Administrativo: 130 plazas.

- ✓ **Grupo C-Subgrupo C2:**
 - Cuerpo Auxiliar: 350 plazas.

- ✓ **Grupo E:**
 - Cuerpo Subalterno: 50 plazas.

